

Txostena, Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko zenbait teknikari eta goi mailako teknikari tituluren curriculumak eta egitura ezartzen duten foru dekretuak aldatzen dituen foru dekreturako proiektua prestatu beharrez, prozedura hasteko alde aurreko kontsulta publikoan izandako parte-hartzearen gainean.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezartzen den bezalaxe, herritar guztiek dute eskubidea egiazki eta benetan parte hartzeko plan, programa edo izaera orokorreko xedapenetan, baita administrazio prozedurretan ere, horrela erabakitzen delarik.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusten diren eskumenak erabiliz, Lanbide Heziketako tituluaren irakaskuntza komunak onetsi ondoan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak curriculumaren garapena zehaztu behar du Foru Komunitatearen esparruan. Horrela ondorioztatzen da Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretutik, haren 8. artikuluan adierazten baita Hezkuntzako administrazioek behar diren curriculumak ezarriko dituztela errege dekretu horretan eta Lanbide Heziketako irakaskuntzen gaineko arauetan agintzen denari men eginez. Era berean, artikulua horretan esaten da hezkuntza administrazioek, Lanbide Heziketako ikasketen curriculumak ezartzerakoan, beren eskumeneko lurraldearen errealitate sozioekonomikoa kontuan izan behar dutela, baita garapen ekonomiko eta sozialaren perspektibak ere, ikasketek beren inguruko sektore sozioproduktiboen kualifikazio-beharrak une oro kontuan izan ditzaten.

Curriculum diseinuak behar den prestasunaz egokitu beharko dira gure Komunitateko ekoizpen sistemaren eta zerbitzuak emateko sistemaren berezko berezitasunetara; horretarako sartu beharko dira eskariarekin bat egiten duen eta Nafarroari egokituta dagoen lanbide kualifikaziora bideratzen duten elementuak. Ildo horretan, lan merkatuen bilakaerak agerian utzi du ikasleek gaitasunak indartu behar dituztela laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako alderdietan; halaxe dio Prebentzio zerbitzuen erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko


39/1997 Errege Dekretuak. Horren guztiaren ondorioa da Lanbide Heziketako titulu guztietan zeharkakotasunez irakasten den Lanerako Prestakuntza eta Orientabidearen lanbide modulua birdiseinatu beharra eta heziketa zikloetako lehen ikasmilako prestakuntzan modu sistematikoan ezarri beharra, salbuespen direlarik Arte plastikoetako eta diseinuko lanbide ikasketetako zikloak.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean arte plastikoen eta diseinuaren arloko lanbide ikasketen antolamendua eta garapena arautzen dituen abuztuaren 9ko 44/2010 Foru Dekretuak arte plastikoetako eta diseinuko Lanbide Heziketako tituluetakoko curriculumak garatzeko eredu bat definitu du, estrategia eta arau berriak ekarri dituen enpresara hobeki egokitzeko, ikasketen antolaketa malgutzeko, ikastetxeen curriculum-autonomia areagotzeko eta ikasleei prestakuntza zabalagoa emateko.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuak aldez aurreko kontsulta abiarazi zuen, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Lanbide Heziketako eta Arte plastikoen eta diseinuaren arloko lanbide ikasketetako zenbait tituluren curriculumak aldatzeko foru dekretuaren proiektua prestatu beharrez, prozedura hasteko. Aldez aurreko kontsulta gardentasunaren atarian argitaratu zen eta posta elektronikoko bide gaitu zen, inacuali@navarra.es, komunikazio bide gisa. Ekarpenera jasotzeko 15 egunak iraganik, prozesua itxi da bakarrik ere jaso gabe.

Iruñean, 2017ko urriaren 24an.

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria



Esther Monterrubio Ariznabarreta